

16. zenbakia
2001eko otsaila

U R I B E K O S T A K O A L D I Z K A R I A

U



Meritxell
Marcos

Hainbat Mis
lehiaketatan parte hartu
izan duen neska hau,
modak txoratuta
bizi da



“El morro” duzue argazkikoa, sekulan
itsasoratzen ez denak nekez ikus dezakeen ikuspuntutik. Kalerarrontzat ezohiko irudia,
itsasgizonentzat, berriz, erxeko ataria.

Argazkiak: Mikel Martinez

ARGITARAZTZAILEA: Boluntarista E.R.E.
 HELBIDEA: Amesti 6, 4. solairua, 5. helgua 48990 GETXO
 e-mail: aldizkari@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 / Tf & fax: 94 491 13 37
 ZUZENDARIA: Jokin Aguirre
 ERREDAKTZAIA: Fati Eskerra, Andoni Ussa, Jaki San Martin
 ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez
 TESTUEN ORRAZKETA: Joshua Butron
 INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
 MARRAZKILARIA: Goñi Vázquez
 KOLABORATZAILEAK: Bitor Egusola, Jokin de Pedro, José Ignacio Lobo, Itaso Arana, Gaizka Escudero, Unai Elorriaga, Algotortu Bernolai Eskola, Akitate Kamiraga, Xabier Paiz
 ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugerza
 PUBLIZITATEA: Jon Gablondo (94 491 13 37)
 FILMAZIOA: ARGIA / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799

Osorik edo zaitu, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, ezinezkoa da.

© BOLUNTARISTA

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskarazko TOPAGUNEko parte da



Aldizkari honak Bizarra Lepoa Euskara Elkartea dirulaguntza jasotzen du

Itxasgane Etxea / Karitateak 1



GETXOKO UDALA

Aldizkari honak Getxoko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Leioako Udala

Aldizkari honak Leioako Udalaren dirulaguntza jasotzen du



TOPAGUNEa



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honak Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jasotzen du

Kostuak direla eta, ezinezkoa zaigu aldizkaria egin, inprimatu eta zuoi musutruk etxera bidaltzea.

gogoratu,
 beharrezkoa da
 ORDAINTZEA
 hilabetero aldizkaria
 etxean
 jasotzeko

2.000 pta. / urte
 94 491 13 37



ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

[flasha]

EUSKARAREN AURKAKO erasoak behin eta berriro, modu sistematizatuan datozkigun garai beltz hauek, pozgarria da goiko irudiak jaso ahal izatea; euskaraz hitz egin nahi duten lagunak dituzue, "Berbalaguna" egitasmoan parte hartzen duten batzuk. Egitasmo honek, gustuen arabera eraturako talde txikietan euskaraz berba egin eta trebatzeko aukera eskaintzen die partehartzaileei. Aurton hirurogei lagun baino gehiagok eman dute izena. Eutsi!

ESAN

"Estatuko egunkariak ez dute euskarari buruzko berri positibo bakar bat ere argitaratzen. Bidegabekeria hutsa deritzot horri"

Bernardo Atxaga "Unescoren Albistaria"

[OTSAILA]

Grisa da otsaila. Zuria eta beltza. Biluzia. Otso beltza elur zurian. Hile herrena, beti labur, inoiz luzetxoagoa bada ere, bere hogeita bederatziko kumeek lau urterik behin zer ospatu eduki dezaten.

Gure tradizioak honela eman izan du otsaila: "Hilerik laburrena eta luzeena". Baita honetara ere: "Emakumeak gutxien hitz egiten duen hila". Ezinbestean.

Otsailak honela behar du: hotza, zuria, latza (Otsailean katuak be arrain eske). Eta hala ez badator, okerrago izango da: "Otsaila bero, negua gero". Izan ere, "otsaileko eguzkia baino txoroago" baita gauzak lekuz edo sasoiz kanpo egiten dituen.

Neguaeren bihotza da otsaila. Grisa. Zuria eta beltza. Biluzia.

JOKIN DE PEDRO

San Jorge eta Herensugea



© GORKA VIZKAYA - 2007

[mugitzen dira]

Itziar Mielgo ekologistak martxan

"Mundu ekologikoagoa nahi badugu, gizartea bera aldatu behar da"



Argazkia: Mikel Martinez

Getxokoa da eta 24 urte ditu. Txakurtegitik jaso zuen Lurra bere txakurrarekin azaldu zaigu elkarriketara. Euskal Herriko Ekologistak Martxan taldeko kidea da. Talde horretan, beste talde askotako lagunak (Rezikleta, Emaus, Zaramazaleak, Eki...) elkarrekin dabilta lanean.

Naturarekiko kezka hori, nondik datorkizu? Ez dakit zehazki azaltzen, baina badakit, ekologismoa dela gaur egun dagoen borrokarik garrantzitsuenetarikoa.

Ekologi kontzientzia indartsu omen dago gurean... Bai, ekologista dela dio jende askok, politiko ugari ere bai. Baina gaur egun dagoen sistema ekonomikoa eta ekologismoa ez dira bateragarriak. Gizarte ekologikoagoa nahi badugu, gizartea bera aldatu behar da eta, argi dago, gure ohitura asko. Eta bai, jendeak ekologista dela esan esaten du, baina bere ohiturak aldatzeko ez dago prest. Agintariek gure hitzak jaso dituzte, baina ez mamia, benetako zentzua.

Zer da ekologista izatea? Naturarekin daukagun harremana ikusteko modu bat. Nik beti Bap taldearen esaldi bat aipatzen dut: izadia ederra eta zabal da ez dugu zertan gainditu. Naturak berak baliabideak ematen dizkigu, baina berak badauka bere erritmoa, bere abiadura. Gu gara abiadura horretara moldatu behar dugunak eta ez alderantziz, orain gertatzen ari den moduan

Zertan da ezberdina Ekologistak Martxan eta adibidez, Greenpeace? Uf, gauza askotan. Ez gara multinazionala, ez gara enpresa bat, ez gara hain burukratiokoak, ez dugu mundu mailan lan egiten... Lan egiteko beste modu bat daukagu, gure herrietan egiten dugu lan...

Zeintzuk dira Uribe Kostan ditugun arazo ekologikorik larrienak?

Trafikoarena oso latza da. Ez gaude autoaren kontra, defendatzen duguna da autoaren erabilera arrazionala. Garraio publikoa badugu, ba, hura erabili. Edota gutxi kutsatzen duten autoak erabili... Beste arazo larri bat, Getxon zehazki, egitasmo urbanistikoa iruditzen zait; berdeguneak desagertzera doaz, Golfak izango da zabalea, eta, jakina, pribatua da. Artea-ko kontua ere badaukagu, errauskailuarena... Lan handia dago.

Zer egin dezake gutako bakoitzak mundu ekologikoago baten alde?

Kontsumismoa itzela da gurean. Produktu bat erosterakoan, benetan behar ote dugun galdetu behar diogu geure buruari. Kontsumismoa murriztea lehenengo gauza da. Hiru r-ena aipatzen dugu beti: murrizketa, berrerabiltzea eta birziklatzea. Baina ordena zehatz hori errespetatu.

Ez al da gatxa, ezinezkoa ez esatagatik, hain kontsekuentea izatea? Ehuneko ehuneko ezinezkoa da, gizarte honetan murgildurik bizi garelako. Baina garrantzitsuena pausoak ematea da; horrela, agian, etorkizunean bestelako gizarte

[UKronikak]

Areeta-Grozni

Testua: Unai Elorriaga

Jendeak ez du sinesten. Jendeak ez du ia ezer sinesten. Jendeak uste du La Farola saldu baino ez dugula egiten. Egun osoa La Farola saltzen ematen dugula uste du jendeak. Edo txirula jotzen, edo dirua eskatzen, beste barik. Egunak zazpi ordu baino ez balitu bezala, edo sei ordu. Izan ere, seia da deabruaren zenbakia. Uste du jendeak egunaren 25 orduak ematen ditugula La Farola saltzen, edo txakur bati txirula jotzen edo dirua eskatzen kartel batekin.

Jendeari esaten diogunean ez digu sinesten. Ez du sinesten jendeak ia arratsaldero biltzen garela eta tertulia literarioak egiten ditugula. La Farola saltzen dugunok, txirula jotzen dutenak eta dirua beste barik eskatzen dutenak. Kritikak egiten ditugu, batzuk onak eta besteak ez. Lantzean behin idazleak ekartzen ditugu kanpotik. Atxaga ekarri genuen lehengoan esaterako. Gustura egon zen Atxaga. Gu ere bai. Zertan ukatu. García Márquez ere ekarri genuen, orain urtebete-edo. Esan zituen batzuk interesanteak izan ziren baina beste batzuk ez. Egia esan aspertu egin ginen apur bat.

Idazle batzuk ez ditugu ekarri nahi, baina hain da handia daukaten interesa ze, etortzen uzten diegu. Vargas Llosa adibidez. Ez genuen ekarri nahi. Inork. Milioi bi eman behar izan zizkigun etortzeko. Etorri zen azkenean. Gustura egon ginen hala ere. Orduetik etortzen diren guztiek ordaintzen digute. Batzuek bost milioi, beste batzuek bederlatzi.

Bati ez genion kobratu, ordea. Kafkari ez genion kobratu etorri zenean. Pertsona kurioa Kafka. Esan zigun erdia ez genion ulertu. Edo ulertu genion baina ez oso argi. Edo argi ulertu genion baina ansiedadea sortu zigun. Berriz ekartzeko gaude.

Guri ere eskaini digute munduko hainbat unibertsitatetara joateko aukera. Estatu Batuetan, barbarako, irrikan daude gu ezagutzeko. Hitzaldiak, eskolak, errezitaldiak eskaini dizkigute. Dena ordainduta, hori bai. Ez dugu nahi hala ere. Non egongo gara hemen baino hobeto, La Farola eskuan, edo txirula eskuan. Bizitza hau bizioa da. Manta artean lo egiten duena epeldu egiten da, bigundu egiten da. Ez dago, esaterako, kalefakzioa baino kaltegarriagorik. m

“ Egun osoa La Farola saltzen ematen dugula uste du jendeak. Edo txirula jotzen, edo dirua



Mikel Martinez

[lehen]



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / ARRILUZE

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Argazkiak: Mikel Martinez



Komunak

Testua: Maddi Albizu

Gizonen eta emakumeen komun edo pixatokiaren arteko muga zorrotza ezartzen duten ateko irudi horiek, batzuetan serioak eta beste batzuetan barregarri diren horiek, agerian uzten dute zein erraz ikus dezakegun naturaltasun osoz batere naturala ez dena. Ez ezazue har "natural" hitza "ona" berbaren sinonimotzat, ezta ez-naturala "txarra" denik pentsa ere. Galdeiozue zuen inguruko edonori zein ote den gizonak eta emakumeak pixa edo kaka egin ala eskuak garbitzeko orduan banatzeko arrazoia eta, ziurrenik, bi erantzun mota jasoko dituzue: emakume gehienek esango dizute "gizonak punteria kaxkarra baino kaxkarragoa dutela eta, horregatik, komuna kristo bat eginda uzten dutelako dela", eta gizonak, aldiz, sorbalda mugimendu inuzente batez erantzungo dute, hain gauza arraroaren zergatia ondoenik ulertuko ez balute bezala.

Emakumeen erantzuna egia handia dela enpirikoki frogatu den arren, ez dut uste nik benetako arrazoia egia santu horretan datzanik. Erromatarren Inperioaren garaian ere erabat debekatuta zegoen bainutoki publikoetan gizonak eta emakumeak elkarrekin bainatzea, eguzkia hartzea, igeri egitea edota irakurtzea. Izan ere, garai haietan bainatu ez ezik irakurri ere egiten omen zuten bainutokietan. Etxean bainugela oso gutxiak zuten bainutokiak publikoak ziren, erromatarren topalekua alegia.

Garbitasuna sinestunaren eginbehartzat duten gizarte islamdarretan, Egipton esaterako, jende asko etxean barik bainu

publikoetan garbitzen da. Eta gizonentzat bakarrik edo emakumeentzat bakarrik ez diren bainutokietan bi txanda egon ohi dira bainatzeko, goizekoa eta arratsaldekoa; hau da, bata gizonentzat eta bestea emakume eta umeentzat.

Ikus daitekeenez, gizon eta emakumeentzako komunak irudien bidez-edo garbi bereizteko arrazoia uste baino sakonagoa da. Ez dago, ez, emakumeak gizonak komun-ontzian utzitako pixa zipristinen gainean esertzetik salbatzeko eta honelako arrazoi praktikorik. Egia esan, bereizketa hau gehiegitan ez da praktikoezia izaten (ikusiko zenuten inoiz emakumeen komuna hutsik, eta alboko gizonen komunean sartzeko sekulako ilara. Higiene arauak, halaber, ezer gutxi diote taberna batek eduki behar dituen komuna kopuruari dagokionez, eta are gutxiago gizonak eta emakumeek non egin behar duten txiza.

Gizon eta emakumeen arteko bereizketa hau gure mamuen ondorioa baino ez da, honezkeru susmatuko zenutenez. Hain gara txotxoloak, ezen gure sexukoaren artean sentitzen gara intimitatean, edozer egin edo esateko. Ateko irudi horiek bi mundu erabat desberdin bereizten dituztelakoan, gustukoa dugu alboko komunean ustez gertatzen denaren inguruan ikaragarritzko mitoak sortaraztea: zergatik ote doaz neskek hiruak komunera?, zertaz ari dira barruan daudelarik?, gizonak beren zakilen tamainak konparatzen al dituzte? Hauentzat eta honelako beste hainbat galderarentzako erantzuna alboko atean aurkituko duzu. Animo!!

Zer izan nahi duzu nagusitan?

Aixerrota Institutuko Batxiler 2. mailako ikasleei

EGILEAK: AIALA ELORRIETA, AMAGOIA ETXEBARRIA, JANIRE ITURRIAGA & KATRIN MUGERZA

PSIKOLOGOA, pertsonen buruko gauzak interesatzen zaizkidalako. Adibidez, patologiak, eta kriminologia interesatzen zaizkit, eta umeen jokabidea ere bai.
Ander Gonzalez

KAZETARIA, benetan gertatzen diren gauzak kontatzeko.
Ane Abarategi

ASTRONOMOA, izarrak, ilargia, eta zeruko beste edozer gustatzen zaizkidalako.
Iñaki Zaballa

Oraindik EZ NAGO ZIUR, baina enpresa munduko zerbait, edo ikusentzuneke zerbait.
Iñigo Kortazar

FISIOTERAPIA, kirolarekin zerikusia duelako eta jendea sendatzea gustatzen zaizkidalako.
Jon Goldaras

Amaitzen ari zaizkigun basoen alde lan egitea.
Iñaki Zaballa

INGENIARIA izatea gustatuko litzaidake lantegietan lan egiteko, baina egia esan ez nahi oso ziur, ikasketeta-maila handia delako.
Maitane Oviedo

Ba, seguraski, INFORMATIKA edo telekomunikazioekin zerikusia duen zerbait.
Mikel Manso

Naturari buruzko erreportaiak egin nahi ditut nagusi naizenean, oso interesgarria iruditzen zaizkidalako.
Naiara Ozamiz

VILLABOTAS
JATETXEA

Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

MOROTXO

Kantxa Kizol moda

TORRENE 13
48990 ALGORTA
TF. 4911882

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



Inauteriak karnabalak...

Eguneroko bizitzan indarrean dauden arauak indar barik geratzen dira

Egutegi tradizionalen indar handiko ospakizuna ditugu inauteriak. Sasoi hau iretargiaren (ilargiaren) egutegiarekin finkatzen da; beraz, jaiak mugikorak edo aldagarriak izaten dira, urterik urtera egun desberdinetan izaten dira. Inauteriak, aste santua, Igokunde Eguna, Korpuztia, etab., Pazko domekaren arabera jartzen dira, eta berau udabarriko lehenengo iretargi betearen ostekoa izaten da eta karnabal Martitzena Pazko domeka baino 47 egun lehenago edo, beste era batera esanda, erramu eguna baino 40 egun lehenago izaten da.

Inauteriak gizarte ikuspegitik aldaketa dakar. Inaute aldian denboraren hariaren apurketa gertatzen da, eta eguneroko bizitzan indarrean dauden arauak, gizarte legeak, etab., indar barik gelditzen dira. Horregatik leku askotan gehiegikerien beldurrez-edo debekatu ere egiten zituzten, agintariak ordena eta legea apurtzearen kontrakoak ziren eta. Honetara zilegi da egun hauetan arau batzuk apurtzea eta gizarte mailen arteko ordena ere goitik behera aldatzea. Inauterietan goian egoten dena burlan eta kritiken bidez beheratu egiten da, eta behean dagoena goratu egiten da, mozorroen bidez kaleko jendea agintari bihurtzen delako. Labur-labur esanda, inauteriar buruz hiru

teoria nagusi dira:

1. Nekazal kulturaren emankortasuna eta berriztapena lortzeko egiten ziren erritoak, izpiritu txarren kontrakoak, etab., oinarriztat hartuta. Honen jatorria paganoa da.

2. Karnabala garizuma aurreko garai lege hartuta. Inauterietako gehiegikeriak, diru bilketak egitea, ondo jatea eta edatea, azken batean ondo pasatzea...; gero garizuman etorriko den urritasunari eta barau aldiari aurre egitea dute helburu.

3. Protesta eta kritika garaia, eguneroko arauak apurtzea, mundu aldrebesaren adierazpena. Guztientzat eta guztien kontrako ikuskitzuna.

Esan dugunez, inauterietan lege guztiak apurtzen dira, baina lege hausketa honek badu muga bat, hausterre eguna. Beraz, berau heldu orduko, hartu zuen mozorroak, maskarak, pelukak, etab., eta ondo pasa! m

Testua: Akaitze Kamiruaga / Argazkia: Jose Ignacio Lobo

Erein bidezko merkataritza

Afrika, Asia zein Latinamerikako produktuak gurean



Erein denda politean Patricia Yana itxaroten dugu, Euskal Herrian bizi den mexikar jatorra. Bera da, atek ireki zituenetik (1999ko azaroan), denda honen arduraduna. Erein, dirurik irabazteko asmorik ez daukan Maus kooperatibaren denda da. Maus-ekoek orain dela 30 urte hasi ziren lanean baztertuen bergizarteratze laborala lortzeko helburuarekin: toxikomano ohiak, langabetu iraupen luzekoak, presoak edota inmigranteak... Hau da, eskuarki lanpostu egoki bat lortzea ezinezkoa duen jendearen alde egiten dute lan Maus-ekoek.

Patriciarekin berbaz gabiltzan bitartean, dendan dauden produktuak begiratzan ditugu. Ia denetarik dago Erein-en: artisautza, arropa, Keniako diskapaitatuek egindako bisuteria, jatekoa.... Patriciak azaltzen digunez, bidezko merkataritzari esker, produktu hauek Afrika, Asia eta Latinamerikatik ekarritakoak dira. Produktu hauen truke, bidezko prezioa ordaintzen zaie hirugarren munduko kooperatibei eta aldi berean, kooperatiba hauek soldata duinak ordaintzen dizkiete langileei; gainera, gizon eta emakumeen eskubideak errespetatzen dituzte, diskriminaziorik egin gabe eta umerik esplotatu gabe. "Kooperatiba hauei, dago-kiena ordaintzen zaie; soldata duina eta, aldi berean, gu saiatzen gara produktuak ahal bezain merke saltzen" azaltzen digu Patriciak. "Adibidez, kalitate handiko kafea, supermerkatu batean 700 pezetatan egon daitekena, hemen 400 pezetatan daukagu" dio. Jendeari kostatzen zaio bere betiko 250 pezetako marka alde batera uztea kafe berezi hau erosteko, baina egiten dutenean ez dira damutzen. Hau askoz hobea da. Gainera, Erein-en, Patricia gauza da produktu ezberdinen ezaugarri buruz informatzeko.

Labur esanda, zera da Erein: merkataritza solidarioa, alternatiboa eta kalitate handiko produktuak eskaintzen dituena. Gainera, erosketak bertan eginez gero oinarritzko beharrak dituztenak laguntzeko aukera eskaintzen zaigu.

Momentu honetan bikote bat sartu da dendan eta guk bukatutzat eman dugu Patriciarekin izan dugun elkarrizketa didaktikoa. Elkar agurtu dugu eta lokal ederrari azkenengo begirada bota ondoren, kalera atera gara. Denda polita benetan, Erein..., eta solidarioa; leku ona, beraz, hurrengo erosketa egiteko. m

Testua: Javier San Martin / Argazkia: Mikel Martinez

Argazkian, Patricia Yana, dendako arduraduna
Erein, Basagoiti etorbidea 56, Algorta

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent-
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

BEROGAILU ETA ITUR-

HIRURAK

T: 430 53


Sarikobaso 15 48990

Barrukoa

Taberna

Telletxe 5

ALGORTA



Jabi Zabala gorliztarra, irrati honen bultzatzaileetako bat

www.irratia.com musika sarean

Orain dela hiru hilabete hasi zen emititzen internet bidezko irrati hau

Harrigarria baina egiazkoa. Sinesten ez dutenentzat (eta besteentzat ere berdin) helbide hau: www.irratia.com, hori da ordenadorean teklatu behar dugun helbidea irrati berezi honetan sartzeko. Orain dela hiru hilabete abian jarri zuten irrati hau Jabi Zabala, Koldo Alonso eta Patxi Gaztelumendi irratizaleek, hirurak eskarmentu handikoak hedabide honetan. Horrela, euren pasio biak, irrati eta internet, uztartzeko aukera izan dute.

Irrati bat sarean sortzeko ideia urrunetik dator ("dominio" delakoa, orain dela urte bat baino gehiago hartu zuten), gazte hauek www.p.d/regaeadictos.com orria ezagutu zutenetik. Koldok site hau gomendatu digu. "Nik dakidala ez dago horrelako orrialderik estatu osoan", adierazten digu mikrofonoa uzteko aukera daukanean. Gorliz Irratia / Uribe Kosta Irratian gaude. Hemen Koldok ostegunero bere musika programa propioa dauka, "Euskal Herria zuzenean", (20:30 / 22:30) eta hemen harrapatu dugu elkarrizketa labur hau egiteko.

Programazio gehiena musikala da www.irratia.com-en, baina berezitasun batzuek egiten dute ezberdin irrati hau. "Programazio

mota bi dauzkagu", argitu digu Koldok beste disko bat aurkeztu eta jarri ondoren; "zuzeneko eta «a la carta» delakoa. Azkenengo honek nahi duzun musika entzuteko aukera ematen du. Eskaintza berritzailea da". Irrati honen beste apostu handia zuzenean egindako elkarrizketak dira. Horietan entzuleak chat bidez eta zuzenean, galderak egin diezazkioke elkarrizketatuari. Formula hau lehenengoz, Fermín Muguruza ospetsuari egindako elkarrizketa batean erabili zuten eta entzuleak harrিতuta geratu ziren.

Oso erreza da www.irratia.com entzutea. Egin behar den gauza bakarra zera da: helbide horretan sartu eta klik egin seinalatzen duen lekuan. "Jende guztiak ez dauka gurea entzuteko behar den programa dio Koldok, baina lortzeko www.winamp.com orrian sartu eta programa jaitsi baino ez du egin behar entzun nahi duenak".

Badakizue, beraz, zer egin behar duzuen irrati gazte hau entzuteko. Gaztea bai, baina bere hiru hilabeteko bititza laburrean, honezkeren lehenengo saria jaso du: Argia aldizkariaren Sarea saria. m



Flyers by Eider Corral

Betiko publizitate berria

Jende gehienari edo, behintzat, publizitatearen munduan sartuta ez dagoenari, "flyer" hitzak agian ez dio ezer ez esango..., nahiz eta seguru asko flyer bat baino gehiago pasatuko zen bere eskuetatik. Bere izenak dioen bezala, "flyer" berbak "hegalari" esan nahi du, horrela banatzen baitzen aspaldian euskarri publizitario hau. Flyerrak eskuorri txikiak dira eta edozein gertakari mota iragartzen dute: politikoak, musikalak, kirol arlokoa... Baina flyer hauek diseinatzea dirudiena baino askoz zailagoa da. Sortze prozesuaren atzean Eider Corral bezalako publizistak, diseinatzaileak eta harreman publikoak daude. Eider Algortakoa da, eta Bost tabernan eserita gaudela, zehazki azaldu digu publizitate metodo zahar honen sortze-lana. Neska saiatu honek, basotxo bat ron eskuetan duela, bere enpresaren bitartez* antzinako metodo hau berpizten ahale-

gintzen dela kontatu digu, nahiz eta jakin oraindik Euskal Herrian, hiri handietan ez bezala (Bartzelonan, Londresen...), flyer-ek ez dutela bizitzeko ematen. Hemen jendeak ez dio, orohar, dagokion garrantzia ematen bere negozioaren irudi korporatiboari eta sarritan gainera, nork bere kabuz diseinatzen du bere publizitatea, eta jakina, emaitzak halakoak izaten dira. Flying Company-k eskaintzen duena bestelakoa da; haiek asmatu ez duten publizitate mota bat, zaindua, kalitatezkoa. Emaitzak bistan dira. m

Testua: J. S / Argazkia: Mikel Martínez

* Flying Company, Portugalete, María López de Haro 15. Euren bezeroak dira besteak beste, Getxoko Udala, Leioako Kultur Etxea edota Getxoko taberna eta komertzio ugari.



SATISTEGI

CITA



ADITUAK GARA
PINTXO ETA
BOKATA
BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA
% 94 46019 69

Leioa aurten 475. urteurrena

Herriaren historiari buruzko liburua idazti du Ana Lópezek



Datorren urriaren 19an Leioak 475 urte beteko ditu; 475 urte Erandiotik banatu zenetik udalerrri independente bihurtzeko. Ordutik hona hainbat gauza gertatu dira herrian eta Ana López historialari gazteak garrantzitsuenak bildu ditu liburu batean. “Leioako historiari buruzko liburua da”, azaldu digu Anak, “baina ez da historia liburu arrunta, data historikoz betea. Nire ustez, historia hori baino askoz gehiago da. Jendea da historia idazten duena; historia bera jendea baino ez da eta hori da liburu honetan batzen saiatu naizena; Leioan gertatutako gorabeherak eta pasadizoak”.

Proiektu honi aurre egiteko ideia udalean bertan jaio zen. Historia ikasle batzuen artean aukeraketa egin ondoren, Ana Lópezegi egokitu zitzaion lan konplikatu hau. Dagoeneko liburua bukatuta dago eta inprimatzea baino ez da falta, Aurretik lan neketsua. Sei hilabete eman ditu Anak datuak bilatzen eta biltzen hautsez betetako artxibotetan, liburu eta dokumentu zaharrak irakurtzen, herriko nagusiei elkarrizketak egiten, ahaztuta zeuden albumetatik antzinako argazkiak “erreskatatzen”... Hala eta guztiz ere, idazlearen ustez zailena ez zen bilaketa lana izan, baizik eta informazio horri guztiari, atsegin izan zedin, forma ematea. Pasadizo eta dokumentu historiko ugari batu dituela azaldu digu leioatar gazteak. Liburuan agiri zahar ugari aurkitu daitezke; batzuk benetan harrigarriak: Alkateak ateratako ordenantza zaharrak, Athletic-en gutun historikoak futbol zelaia erabiltzeko baimena eskatuaz, eta abar. Gazteenak benetan harrituko dira pasadizo batzuekin. Adibidez, ezetz jakin Gobelan estropadak eta igeriketa txapelketak egiten zirela? Edo udalaren borroka herrira lehenengo telefonoa eta argi indarra ekarrazteko. Liburuak XVI. mendetik lortutako datuak biltzen ditu baina informazio gehiena hurbilagokoa da, 1875etik aurrerakoa. Azkenik aipatu, urteurren berezi hau ospatzeko, liburuaz gain, beste ekitalde batzuk ere prestatu ditu ela herriko

Carmen Sarmiento

Hitzak arma dituen emakumea



“Nik gerrari gorrotoa diot, eta hura egiten eta bultzatzen dutenak ere gorrotatzen ditut”

Hegoamerikan jaio izan balitz, fusila eskuetan ibiliko zela aitortzen du. Hala ere, herrialde garatu batean hazteko “zortea”-edo izan zuen Carmen Sarmientok eta, horregatik, hitzak dira bere arma bakarra. “Nik gerrari gorrotoa diot, eta hura egiten eta bultzatzen dutenak ere gorrotatzen ditut”, dio. Televisión Españolako gerra korrespontsala izan zen hainbat urtetan, eta denbora horretan ezagutu eta ikusi zituen gatazkek eragin handia izan zuten berarengan. Ordutik hona, herrialde azpigaratuetan gertatzen diren bidegabekeriak gartsuki salatu ditu. Hala ere, heroi iruditik aldendu nahi du. Bere burua gehiago “hitzaren gerrilari” bezala definitzen du. “Hainbeste bidegabekeria ikusi ditut, batez ere emakumeek pairatzen dituztenak, ezen betidanik egoera horiei aurre egiteko grina sentitu baitut. Zentzu horretan, izpiritu justiziazalea daukat. Dena den, emakume bakesalea naiz, eta neure lana, sormena eta pasioa ahulenen zerbitzura jarri dut. Baina espiritu errebelde eta borrokatzailea mantentzen dut, noski”.

Carmen Sarmiento duela egun batzuk Getxoko Antzokian izan zen, eta El Salvador, Filipinas, India, Guatemala eta Mozambikeko emakumeen egoerari buruzko hitzaldia eskaini zuen. Gertutik jarraitu duen drama gizarteratzeko ahalegina da, jendeak munduan gertatzen denarekiko kontzientzia har dezan. “Aberastasanaren banaketa zuzenagoa ez dagoen bitartean, gatazka puntuek bere horretan jarraituko dute. Haien herrialdeetako pobreziatik ihes egiteko asmoz, pertsona horiek beren bizitza arriskuan jartzeko prest daude. Hor dugu egunero Gibraltarren gertatzen dena, eta denok gara drama horren lekuko”. Hurrengo hilabeteetarako Sarmientok agenda beterik dauka. TVErrentzat “Los excluidos” izeneko telesaila prestatuko du eta, horretarako, Intermon eta Entre culturas Gobernu Kanpoko Erakundearen laguntza izango du. Ondoren, kliterodoktomia gainera dokumentala osatuko du. “Duela urte batzuk salatu nuen hura, baina orain gaian sakontzeko aukera izango dut”. Azkenik, Marokoko emakume ezkontugabeen egoera aztertuko duen dokumental bat egiteko asmoa dauka,

Turikaldoi

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela



IHAUTERIETAN!!!!

Scras. Julia Learra

JANTZIAK, KAMISETAK ETA
EUSKAL ARROPAK....

...MOZORROAK, KARNABALETARAKO
BEHAR DUZUNA... ETA GAINERA...
DESPEDIDAK!

bilboguia@bilboguia.com

Juan Bautista Zabala 3

T: 94 460 04 62 / 48990 ALGORTA



BILBOMICRO

“1982az geroztik
soluzio informatikoak
eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

Alain Goikoetxea

[skater profesionala]

Gutxi dira aukeratuak, gutxi elitean daudenak. Alain da horietako bat. Munduko skater onenekin patinatzen du, bere irudia aldizkarietako iragarkietan azaltzen da..., skater profesionala da. Algortakoa, betikoa. Debebatua egon arren, San Nikolas plazan ikasi du eta ikasten jarraitzen du bere ogibidea.

Argazkiak: Carlos Terreros / Testua: Jokin Aspuru

Zer egiten du skater profesional batek? Nire lana, batez ere, marka jakin batzuei irudia ematea da; elkarrizketak egin behar izaten ditut, nire irudia aldizkarietako iragarkietan ateratzen da... Horregatik asko bidaiatu behar izaten dut atzerrira, batez ere, Europara eta Ameriketara. Txapelketetan parte hartzen dut, promozio bidaiak egiten ditut... Bidaia hauetan, bideoak grabatzen dira eta iragarkietarako argazkiak ateratzen dizkirate. Horregatik esaten dut profesionala izateko edonora bidaiatzeko prest egon behar duela batek. Gero jakina, ondo eta asko patinatu behar da, bestela nekez izango duzu-eta sponsor edo babeslerik.

Nekez ikusten da 30 urtetik gorako skaterrik. Ez al da oso gazteentzako kirola? Beharbabada zuzen zabilta, baina skater mitikoeak, Caballerok... 30etik gora dituzte, eta hor jarraitzen dute. Bestalde, jakina, kirol gogorra da hau; min hartzen da, erraz apurru dezakezu edozein hezur... Hala ere, adinari baino, izpirituari, norberaren izakerari lotua dago kirol hau.

Zergatik skatea?

Ba, ez dakit. Txikitatik datorren kontua da. Beti gustatu izan zait mugimendua, abiadura... Horregatik, gauza izan nintzenez, bizikletarekin hasi nintzen; ondoren, bederlatzi urte nituela, patina azaldu zen nire bizitzan, gero snowboarda, eta surfa ere egin izan dut. Mugimenduak, desplazamenduak, abiadurak.. horiek guztiak eragiten duten zirrarak txoratu naute betidanik. Orain adibidez, autoak gustatzen hasi zaizkit.

Lehen esan diguzu asko bidaiatu behar izaten duzula. Jakin dugu Kalifornia aldean ibilia zarela...

Bai, abuztuan egon nintzen han. Nazioarteko Reef skate taldeko kidea naiz. Talde hori skater brasildarrek, ipar amerikarrek osa-

tzen dute, ni neu naiz europar bakarra taldean. Hara joan nintzen, ba, lantzean behin egiten dugun taldeko bilerara. Kalifornian lehenago ere egonda nago. Reef plaiara enpresakoei zapatila berrien diseinuan laguntzeko, aholkuak emateko eraman ninduten hara. Badituzte diseinatzaile onak, baina enpresako jabeek Europako baten bat egotea nahi zuten eta hara joan nintzen horretarako bereziki. Bestalde, Europatik zehar sarritan bidaiatzen dut. Frantziara askotan joaten naiz, nire arropa sponsorrak Martseilan duelako egoitza. Ondo etorri zait, frantsesa ikasten nabil eta.

Hitz egin dezagun skateari buruz. Patinatzeko zer nahiago, kalea, pista...? Skater modura nire ezaugarriak nagusia zera da, edozertara moldatzen naizela, dena gustuz zait, todoterrenoa naiz; kalea, barandak, eskilerak, igerilekuak, u-ak..., dena gustatzen zait. Patinaren gainean noanean gustura noa eta patinatzeko balio duen edozer topatzen badut, itu-itsuan haraxe.

Profesional izanda, entrenamendu berezirik egiten al duzu?

Bai, baina batez ere, patinatu baino ez dut egiten. Neguan snowboard egiten dut eta udan surf apur bat, oso kirol osagarriak dira biak skatearekin. Beharabada, ariketa fisiko gehiago egin beharko nuke (barre).

Leku bat patinatzeko.

Esaten badut akaso herriko agintarietara ez zaie gustatuko, baina tira. Leku bat: San Nikolas plaza. Han hasi nintzen, han ikasi dut eta hantxe jarraitzen dut ikasten.

Debebatuta omen dago herriko kaleetatik patinatzea...

Bai halaxe da eta isunak jartzen dituzte. Batzuei antza, enbarazu egiten diegu. Guk hainbat zalaparta izan ditugu munipekin.



Betidanik ezagutzen gaituzte eta guk eurak. Eta beti betiko kontua: Zer, lagunok? Badakizue ezin dela hemen patinatu... Kontua da kalean baino ezin garela egon. Badago La Kantera parkea baina oso baldintza txarretan, zaharkitua, han ezin da gauza berririk ikasi; gainera, ez dauka argirik eta euria egiten badu, akabo. Inguruan skater mordo dago eta laguntza gehiago behar dugu erakundeen aldetik.

Udalari proiekturen bat aurkeztu diozue, ezta? Azaldu apur bat.

Bai. Skatearen gainean ibiltzeko parke estalia egiteko proiektua da, oso landua. Euria egiten badu edo eta hotz handia, ez dago patinatzerik. Baina egitasmo hau ez da patinatzera mugatzen. Balizko leku horretan, kafetegi bat dago, umeentzako skateparka, eta nagusientzako beste bat, aldagelak eta dutxak, materiala alokatu zein erosteko dendak, rokodromoa, liburutegia, harmailak nazioarteko lehiaketak zein erakustaldiak bertan egin ahal izateko... Oso proiektu handia da, eta horregatik garestia, baina hemen dagoen zaletasunarekin errentagarria

Babesle edo sponsorrei esker bizi dira skater profesionalak. Hauek dira Alainenak: patinatzeko tresnak, skate, gurpilak, etab., Northceral distribution; oinetakoak, Reef; arropa, Volcom; erlojuak, Nixon; motxilak, Dakine; betaurrekoak, Dragon.



izan daiteke. Ideia ez da guk asmatutakoa, EEBBetako herri nagusi guztietan horrelako bat edo bi daude. Ea onartzen duten skate-riok horrelako zeozer behar dugula.

Horrenbestekoa al da zaletasun hori? Bai, baina ez bakarrik zaletasuna, maila handia ere badago. Skater mordoak dago herri guztietan, badaude hainbat skatepark ere: Leioan, Getxon, Areetan, Sopelan eta Berangon berriak egingo dira... Zalantza bari gora doa skatearen mundua. Orain ume gehienek daukate patina eta hori izugarri gustzen zait, lehen apenas ikusten zelako inor patinarekin. Ume guztiak zoratuta dabilta baina ez hemen bakarrik, mundu osoan. Horregatik, lehen esan dizudan bezala, erakundeen aldetik laguntza gehiago behar dugu, kirol hau beste edozein bezala normalizatu ahal izateko.


Gaia aldatuz Alain, musika eta skate lotuta daude, badago hor zeozer. Zer entzuten duzu zuk patinatzeke? Musikak izugarri laguntzen du; motibatu egiten du, berotu. Nik boladak izan ditut, gazteago nintzenean hardcore gehiago entzuten nuen, musika punkia... Gaur egun musika lasaiagoarekin ere ederto patinatu dezaket: jazz, acid jazz, fusion... Orain, adibidez, hip-hop asko entzuten dut.

Moda, janzkera berezia da zuona... Beno, bai, arropa zabala da, txotodun suda-derak... Skateak nolabaiteko moda sortu du, baina nik nabarmenduko nuke, skaterrek eurek asmatu dutela. Gure arropa eta oinetako konpainiak sortu ditugu, gaur egun asko saltzen dutenak, eta ez bakarrik patinatzaileen artean, janzkera hau asko hedatu da gizartearen. Patinatzaileoi oso ondo dator-kigu, horietatik baitira gure sponsorrak.

Orain, zer asmo darabilzu? Bada, laster, maiatzean, abuztura arte luzatuko den tour promozional bat daukat. Erakustaldiak egingo ditut hainbat herrialde-tako skatepark zein kaleetan. Alemania osoan ibiliko gara, gero eskandinavia aldeko herrietan: Suedia, Norvegia eta Finlandia. Ondoren Danimarka eta handik Moskura abiatuko gara, eta gero ekialdeko herri horietara, oraindik ez dakit zehazki zeintzuk. Abuztuan amaituko da tourra. m

Jateko... Barazkiak
Edateko... Coca Cola eta zukuak
Azkeneko liburua... "Aprende a manejar tu iMac"
Azkeneko diskoa... Violadores del Verso-ren, Mierda diskoa
Miristen duzun inor... ...
Patina, sancheskia ala skatea... patina edo eskatea, irakurtzen den moduan





Mikel Eskauriaza—. Aspaldian dabil artearen munduan murgilduta Mikel Eskauriaza (Getxo 1969). Hain modu frenetikoan aldatzen ari den gure inguruko paisaiaren gainean lanean ari da. Orrialdeotan lan handi horren ale batzuk dituzue. Gaur egun, New York-en bizi da.


Jose Morales Belda itzultzailea

“Itzulpengintza ere sormen lana da”

Zelan sartu zinen itzulpengintzan? Literatur esperientzia gabiltzan asko bezala, ia-ia txirripaz. Errusiera ikasten hasi nintzen hizkuntza asko gustatzen zitzaidalako, eta, bestetik, gaztetatik hango idazle klasikoak oso gogoko nituelako. Asmo handirik gabe hasi nintzen ikasten, baina geroz eta serioago hartu nuen. Lagun baten bitartez Literatura Unibertsalaren berri izan nuen (EIZIEK eta Eusko Jaurlaritzak batera ateratzen duten bilduma), eta bilduman Maxim Gorkiren Ama itzultzeko zegoen. Lehiaketara aurkeztu nintzen, eta hartu egin ninduten. Hura izan zen itzuli nuen lehen liburua. Oso gustura aritu nintzen lan horretan, jendea ere gustatu zitzaion, eta horrela jarraitu dut, orain arte.

Autodidakta izanik, zeintzuk dira horren alde onak eta txarrak? Ez dakit alde onik edo txarrik duen. Hala gertatu zen itzultzen hasi nintzen garaian hemen itzulpengintza ikasketak ofizialik ez zegoelako. Itzultzen hasi nintzenean, berehala konturatu nintzen bi hizkuntzak jakiteaz gain itzulpen teknikak ere menperatu behar nituela. Orduan, itzulpengintza teknika eta teoriari buruzko libururik garrantzitsuenak eskuratu nituen, eta buruz ikasi nituen. Nik ezinbestekotzat jotzen nuen: edozein ogibidatan teknika eta teoria menperatu behar dituzu. Zalantzarik gabe, ikasketa formalak badaude eta ondo antolatuturik badaude, errazagoa izan daiteke ikasketa prozesua. Dena den, oso gustura ikasi nuen neure kabuz.

Orain arte, itzultzailea itzalean lan egiten zuen pertsonaia zen. Gaur egun, itzultzailearen egoerak hobera egin du? Bai, gero eta gehiago. Ez bakarrik hemen, mundu osoko itzultzaile elkarte guztien erreibindikazio nagusietako bat hori izan da: gizar-teak onartzea itzulpengintzak daukan balioa. Sormenetako protagonista idazlea da, zalantzarik gabe. Baina itzultzaileak egiten duen lana neurri batean sormen lana da, eta aintzat hartu beharreko hori ere. Orain arte, egia esan, guztiz itzalean egon da, eta batzuetan erabat ezezaguna izan da. Zorionez, eta Euskal Herrian



Testuak: Ezti Ezkerra / Argazkiak: Mikel Martinez

gehienak jatorrizko hizkuntzatik zuzenean egiten dira. Eta literaturan, behintzat, oso ondo menperatzen dute jatorrizko hizkuntza eta euskara bera ere. Bestalde, itzulpen teknika egokiak erabiltzen dituzte. Lehengo itzulpengintzak zuen akatsetariko bat zen hitzez hitz itzultzen zela, eta testuak batzuetan gordin samarrak izaten ziren.

Badago zer hobetu, baina egoera oso ona da. Dena den, kalitatean baino hutsunerik handiena kantitatearen arloan daukagu. Gaur egun itzultzen diren liburu gehienak klasikoak dira, baina gaur egungo literatura gutxi itzultzen da. Denok dakigu literatura berez oso errentagarria ez dela, eta itzulpenek argitaletxei diru galarak ekarri ahal dizkiete. Nik ulertzen dut argitaletxeek zer itzultzen duten ondo neurturik izatea. Horregatik plangintza on eta orokor bat egin beharko litzateke, eta dirulaguntza politika egoki bat beharko litzateke.

behintzat, gero eta gehiago hartzen da kontuan itzultzailearen lana. Alde horretatik aurrerapen handia egin dugu.

Euskadi saria jaso zenuen. Sari hark gerora eragin izan al du zure egitekoan? Egia esan ez. Epe laburrean bai, hedabideetatik deitu zidatelako elkarrizketak egiteko. Baina astebeteko kontua izan zen. Nire eguneroko zereginen ez du eragin handirik izan. Hori bai, norberarentzat garrantzi handikoa da jarraitzeko gogoia ematen duelako. Dena dela, sari horiek garrantzitsuak dira itzulpengintza bera saritzen delako eta gizartean duen kultur ekoizpen pisua onartzen zaiolako.

Zer moduzkoa da Euskal Herriko itzulpengintza? Gaur egun egoera orokorra oso ona da. Oso itzulpen onak argitaratzen ari dira, eta itzultzaileak gero eta “profesionalagoak” dira, gehienok beste zeregin batzuk izaten baititugu. Itzultzaileak gero eta arduratsuagoak dira, oso ondo dakite zertan ari diren eta serio hartzen dute beraien lana. Gainera, itzulpen

Itzuli baino zerbait idazteko tentaziorik izan al duzu inoiz?

Egia esateko, ez. Askotan galdetzen didate hori, baina izugarri zaila iruditzen zait idaztea. Lehen esan bezala, itzulpengintza ere nolabait teko sormen lana da: birsortu egin behar da idazle batek egin duena. Baina niri askoz zailagoa iruditzen zait istorioa jostea, pertsonaia sortzea, gero hori itzultzea baino. Alderantziz ere gertatzen da. Idazleek esaten dute itzultzea askoz zailagoa dela, eta normalean beraiek ez dituzte itzuli nahi izaten beren liburuak. Ez dut inoiz ezer idazteko gogorik ezta beharrik izan. Gustura nago egiten dudanarekin. m


Berakitzulitakoak

Ama, Maxim Gorki (*Ibaizabal*, 1995)
Gure garaiko heroiak, Mikhail J. Lermontov (*1996*)
Euskadi saria
Saltan erregea, Aleksandr Pushkin (*Descleé de Brower*, 1996)
Kapitainaren alaba, A. Pushkin (*Ibaizabal*, 1996)
Arima hila, Nikolai Gogol (*Ibaizabal*)

Duen adinerako Harkaitz Canoren bibliografia beldurtzeko modukoa da. 25 urte dauzka eta dagoeneko sei obra ditu kalean: poema liburu bat, bi nobela eta hiru ipuin bilduma. Lasartekoa, baina, geldirik egoten ez dakien horietakoa da, eta duela gutxi bere literatur faktoriaren azken uzta ezagutu ahal izan dugu: Piano gainean gosaltzen kronika liburua, eta Uztail oparo ostein diskoa. Udaberri aldera, berriz, Joseba Jaka Fundazioko bekari esker idatziriko Norbait dabil sute eskaileran poema liburua kaleratuko du. Piano gainean gosaltzen liburuaren “arima” Canok New Yorkera egin zuen bidaia batean dago. Nobela bat idatzi behar zuela aitazkiat harturik, 1998ko urrian maletak hartu eta EEBBetara abiatu zen. Bertan hilabete batzuk eman zituen, baina denbora nahikoa izan zuen New Yorkekin maitemintzeko. Horregatik, Euskal Herrira bueltatu zenean, ordurako New Yorkerako itzuleran pentsatzen zuen. Eta bere ingurukoak gurari horren lekuko dira. Edozein gai hizpide izanda ere, Canok beti ekartzen du New York gogora “Nola ni ez nintzen soldaduzkan izan, orain afaloste guztietan New Yorki buruz hitz egiten bukatzen dut. Lagunentzat petral hutsa, baina liburuarekin nolabait barrua hustu egin dut”. Piano gainean gosaltzen obran New Yorken zela Euskaldunon Egunkariko Barkatu Ama gehigarrian idatziriko testuak jaso ditu Canok, eta

Harkaitz Cano geldiezina

New York-eko ibilerak liburu batean bildu ditu



kronika bihurturiko esperientzia pertsonalak gaineratu dizkie. Uztail oparo ostein, berriz, duela bost urte jaiotako ideia baten emaitza da. Igor Kaltzadarekin batera, Canok musika eta poesia uztartzen dituen disko bat osatu du. Ehuneko ehunetan berak eginiko lana da: doinuak Igor Kaltzadarenak dira eta letrak, berriz, Harkaitzenak. Bientzat esperientzia aberasga-

ria izan da, batez ere publikoarekin duten harreman zuzenagatik. “Publikoarekiko harremana oso polita da. Nik orain ulertzen dut zergatik 55 urterekin Rolling Stones-ek jotzen jarraitzen duten. Ez da dirua, une hori da, jendearekin egotea”. Lana ezagutzera emateko asmoz, Canok eta Catzadak hainbat emanaldi eskainiko dituzte Euskal Herri osoan. m

[arteskola]



Jose Maria Cundín

Gure inguruan jaioa den artista hau (Areeta, 1938), bere garaiko artisten artean nabarmendu da bere lanak duen izate bitxi eta irrifartsuagatik. Oso gazte hasi zen munduan zehar bidaiatzen eta, bere egoitza eta estudioa leku ezberdinetan finkatu zuen; Mexiko, Kolonbia, New Orleans, Belgika... Bere ibilbide luze hau gertakizun bitxi bezala dago. Adibide gisa, hau: sukar batzuek jota petrikilo batengana joan zen. Azkenean, handik ihes egin behar izan zuen sasimediku honen alabarekin eskonarazia ez izateko.

Cundín, bere sasoiko artisten artean ekintzako artea praktikatu duen bakarretakoa izan da, zenbait happening eginaz. 1959an arte grafikoei buruzko eskolak hartzen ditu New York-eko Pratts Institute-n. Ondoren ikasketa hauek alde batera utzi zituen Bohemia aldizkarian kolaboratzaile bihurtzeko. 1963an Bizkaiara itzuli zen, gero Brujas, Ertamerika eta Iparamerikan zehar erakusketa denboraldi emankor bat egin zuen. Honen ostean, Mexikoko arte ederretako fakultatearen irakaslea izan zen. 1969an Garcia Erguinarekin batera, Bibon, Illescas aretoan egin zuten erakusketa.

Plastikoki, Miguel Angel Marrodanek dioenez «Jose Maria Cundín benetako bakana da gure gaurkotasunean». Hemendik urrun bizi da gaur egun, baina ez gure gizakiengandik eta gure historiaren. Bere lanek xamurtasun poetikoa daramate eta figurazio berriak kokatu behar dira.

Bestalde, Cundín salatua izan zen elkarrizketa batean Espainiko Austria etxe erreala erasotzeagatik (Felipe II de baño, artelana egin zuen). Harek elkarrizketa berean, zera esan zuen: barregarri uzten dut halako pertsonaia gogoak bultzatuta. m

Testua: Alberto Zeballos

KURKUDI
LIBURU DENA

Euskarazko irakurgai guztiak!!

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

[berbetan]

Meritxell Marcos

Moda eta “edertasunaren” mundu horretara hurbildu nahi izan dugu eta baita horretan murgiltzeko pertsona egokia topatu ere. Meritxell Campos du izena. Leioakoa da baina Sopelan bizi da. 25 urte ditu. Umeen heziketa ikasketak hasi zituen eta andeño ibili zen praktiketan Betiko Ikastolan. Baina moda, arropa da bera txoratzen duena eta horregatik, mundu horretan sartzeko aukeraren baten bila, hainbat *Mis* lehiaketatan hartu du parte. Besteak beste, Mis Bizkaia lehiaketako finalista izan da, baita Mis Interviukoa ere.

Argazkiak: Mikel Martinez / Testua: Jokin Aspuru

Hainbat mis lehiaketatan parte hartu izan duzu, deigarriena Mis Interviukoa iruditu zait...

Historia luzea da. Ni Mis Bizkaian aurkeztua nintzen lehenago eta txanda bi pasatu nituen. Orduan, zelan esan? Pikatu nintzen eta modelo izateko agentzia batean izena ematea erabaki nuen, niri arropa, moda izugarri gustatzen zaidalako. Hori da nire benetakoa interes. Orduan, esaten nuen moduan, modelo izateko ikastaroa egin nuen eta horrela hasi nintzen mundu horretan nire gauzatxoak egiten: desfileak... Hurrengo urtean berriro eman nuen izena Mis Bizkaia lehiaketan eta finalean parte hartzea lortu nuen. Garai hartan azafata nintzen eta Donostian lanean nengoela, Mis Interviukoa zona norte lehiaketa iragartzen zuen kartela ikusi eta animatu nintzen. Donostian zen eta ni bizkaitar bakarra izanik, aukera gutxi nituela uste nuen, baina azkenean, lehenengo saria eman zidaten.

Parte hartzeko erabaki hori erraza erreza izan al zen zuretzat?

Nik modaren munduan sartu nahi nuen, eta handik zeozer atera zitekeela pentsatu nuen. Jakina, ez nengoen edozer egiteko prest, baina nahiko modu onean enfokatu zutenez..., ba ondo zegoela iruditu zitzaidan.

Zelako esperientzia izan zen?

Alde batetik ona, eta bestetik ez hain ona. Donostian oso ondo egon zen, Interviukoa

koengandik errespetu handia eta oso tratu profesionala jaso nuen. Dena primeran. Gero finalerako Madrilera joan behar izan nuen, astebezez. Eta han oso txarto pasatu nuen. Ez zeukan Donostian esan zidatenekin zerikusirik. Sei egun eman nituen hotelean ia giltzapean, koreografoak oso tratu txarra ematen zigun... Alde egitekotan egon nintzen.

Biluzik posatzea, zer? Lotsarik bai?

Ez nuen erabat biluzik posatu behar izan, toplessa baino ez zen eta izena eman nuenean banekien hori egin beharko nuela. Gainera, ez ziren neurritz hanpoko argazkiak, ez zuten irudi txarrik eman behar. Egia esan, ez nuen lotsarik pasatu, azken batean hondartzan toplessa egiten dudalako. Etxekoen iritziak gehiago kezkatu ninduen. Gainera, lehenengo, oroitzen naiz, aitarekin hitz egin behar izan nuen ama etxean ez zegoelako. Kezkatuta nengoen baina erantzun ona jaso nuen, nire onerako izango zela uste banuen, bidea egiteko baliko zuela uste banuen, ba, erabakiak hartzeko nagusitoxa nintzela esan zidan aitak, eta aurrera egiteko. Lotsa gehiago pasatu nuen argazkiak egin zizkidatenean nire gurasoak bertan egon zirelako.

Mis lehiaketak susmagarriak izaten dira. Hori esaten da, behintzat...

Nik uste dut beti badagoela zerbait, zeozer iluna, erabakita egoten dela nor izango den irabazlea. Ezin dut egiaztatu, baina faboritis-

moak egon badaude.

Beste kontu bat, gorputzak edertzeko egiten diren ebakuntza horiek...

Ni ez nago ezertatik operaruta, ezta apendizitistik (barreak). Baina bai, kasu asko egoten dira. Lehiaketetan nabarmen ikusten da, segituan igartzen da hori, beharbada gizonetik ez zarete hain erraz konturatzen (barreak). Beno, baina horretarako ere dirua behar da, gainera txapuz itzelak ikusten dira batean bestean.


Baina bidezkoa iruditzen zaizu, adibidez lehiaketa batean, gorputz perfektua, baina kirofanoan konpondua, gehiago baloratzea?

Horrelako gorputz bat ikusten dudanean, operatua, nik errespetatzen dut, jakina, nork bere buruarekin nahi duena egin dezake. Baina nik ez dut hor edertasunik ikusten, segituan baztertzen dut. Niri ez zait gustatzen, naturaltasuna gehiago estimatzen dut. Beste kontu bat da saltzen dizkiguten gorputz horiek, perfektuak, akatsik gabekoak, ia existitzen ez diren gorputzak. Begietatik sartzen dizkigute eguenero, iragarkietan... Eta horrela engainatzen gaituzte. Eta ematen du, batez ere emakumezkoak, eder eta lirain egon behar dugula beti, hori estimatzen dela gudan, eta jakina hori..., ba astakeria da. Nik uste dut, ez gaituztela benetan garen modukoak izaten uzten.

Lehiaketa horietan parte hartu izanagatik lan aukerarik sortu zaizu?

“Ematen du emakumezkoak eder eta lirain egon behar dugula beti, hori estimatzen dela gudan. (...) Ez gaituzte benetan garen modukoak izaten uzten”






Egia esan, gauza handirik ez. Telebistan saio batean lan egiteko casting baterako deitu zidaten, baina ezerezean geratu zen dena. Gero, telebistako saio batzuetan egona naiz, Sorginen Laratzean, Telebilbaon elkarrizketa saio batean... Baina gongodatu moduan deitu izan naute eta, jakina, ez dute ezertxo ere ordaintzen. Duela gutxi Bilbovisionetik ere deitu zidaten, eta ezetz esan nien. Horrelako gauzak ondo egon daitezke hasiberrientzat, baina nik 25 urte baditut eta atzean lan asko egina naiz. Gainera, norberaren kontura espazioak betetzen dituzte eta, behin joan daitezke edo birritan edo hirutan, baina gehiagotan..., ba, ez. Honek ez dauka telebistarekin zerikusirik, baina duela gutxi, desfile bat egiteko deitu zidaten, gainera lentzeria, eta zera galdetu nien: Zenbat ordainduko didazue? Beno, ba... ezer ez, zure burua ezagutzeko aukera bat da erantzun zidaten. Beno ba, nire burua nahiko ezagutzen dute, eta jakina, ezetz esan nien.

Gaia aldatuz, modelo agentzia batean egona zara, mundu hori ezagutzen duzu, nolakoa da modeloen arteko giro hori? Nik Bilbokoa baino ez dut ezagutzen eta Bilbo oso txikia da. Inork benetan modelo izan nahi badu hemendik atera beharra du,artzelona, Madrilera... Nik baditut kanpora joan diren lagunak; beharbada ni ez naiz hain ausarta izan. Ez naiz nire gauza guztiak utzi eta alde egiteko prest egon. Nahiago izan dut, hemen, nire giroan bizitzen jarraitu. Eta esan dizudan moduan, Bilbo oso txikia da eta agentzia pare bat baino ez daude. Mundu oso itxia da, eta ni ez naiz giro horretan oso sartuta egon, ez zait interesatu. Lan egitea bai, baina ez hor egun osoa ematea, ez da nire giroa.

Orain denda garesti eta ezagun batean zabilta lanean? Zertan zehazki? Batez ere, erderaz esaten den moduan, "mustrarioak" egiten ditut, hau da, arropak jantzi bezeroek zer-nolakoa den ikus dezaten. Baina ez dut hori bakarrik egiten, produkzioan, salmentan... laguntzen dut. Ahal dudan guztia ikasten saiatzen naiz. Behin baino gehiagotan esan dizudan bezala, arropa nire pasioa da eta nire ametsa egunen batean, -hala izan beharko du orain txakur txikirik ez dudalako- neure arropa denda propioa izatea da. m

Meritellek guretzat posatu zuen. Arropa guztia Indian Rose etxearen uda/udaberri 2001 bildumakoa da. Bikinia Reef etxearena da



LABUR LABUR

- Bertuterik handiena: zintzotasuna
- Akatsik nabarmena: segituan haseratu naiz
- Ikastolako oroitzapen txar bat: irakasleekiko harreman eskasa
- Infantziako irudi bat: kalean jolasten
- Gogoko ikasgaia: ingelesa
- Modelo bat: Naomi Campbell
- Ezinezko ametsa: gaztea naiz, oraindik dena da posible
- Zer ari zara irakurtzen: American Psycho, oso latza da eta orrialde batzuk pasatu egiten ditut.
- Zaletasuna: lagunekin egotea



gaizka escudero / villabotas-ekoa



itsaso arana / jolastoki-koa

Birigarroak

Birigarroak ondo lumatu ondoren, irinetik pasatu, gatza eta piper apur bat bota, eta lapikoan jarriko ditugu urreztatu arte. Olio berean eta birigarroak baztertu ondoren, tipula bi eta porru pare bat (ondo txikituak) jarriko ditugu su ahulean, hauek egin arte. Ondoren atzera sartu birigarroak lapikoan. Kofiak basoerdia, litro erdi ardo zuri eta beste litro erdi ardo beltz gehituko diogu segituan. Okela salda apur bat bota ahal zaio eta eskura ez badaukagu starluxa. Eragin apur bat eta, ondoren, txokolate puska bat (egitekoa) bota. Plater honek ondo onartzen ditu espezieak; nik intxaur muskatua botatzen diot. 30-40 minututan su ahulean eduki eta jateko prest izango ditugu. Laguntzeko arroz zuria jarri dezakegu.

osagaiak (2 laguntzat)

dozena erdi birigarro • bi tipula gorri • porru bi • ardo zuria, litro erdi • ardo beltza, litro erdi • kofia, basoerdi • txokolate (egitekoa) puska bat • intxaur muskatua • olio • gatza eta piper apur bat



MIKEL MARTINEZ

Aditua izan barik (edo akaso bai) adituaren itxurak egiteko aholku baliagarriak

- 1 Priorat, Toro, Somontano eta Ribera de Duera beltzak eskatu. Rias Baixas, Rueda zuriak eskatu eta Chardonnays-ak kupelean fermentatuak.
- 2 Kaba hartu aperitiboan.
- 3 Etxean ate gardeneko ardo armairu klimatizatua eduki
- 4 Eskatu ardoa zuzenean bodegan.
- 5 Edozein ardotaberna berezietara joan, ardoa kopaka dastatzeko.
- 6 Jakin beltz galiziar interesgarrienak Ribera Sacra-koak direla.
- 7 Postrean Pedro Ximenez bat eskatu.
- 8 Rueda edo Rias Baixas bat eskatu, baina ez dadila izan azkeneko uztakoa (2 edo 3 urte, gehiago ez).
- 9 Brandy ardo beltzak edaten diren tenperaturan (18º) eskatu, kopa txikian.
- 10 Gaiaren inguruko dauden agerkariak ezagutu.

ARDOEN GAINEKO GALDERARIK BADUZU:
Faxa: 94 491 13 37 / e-posta: aldizkaria@euskalnet.net



Mikel Martinez

Brita Almagia enologoa Getxoko gazte hau “Bertoko” garagardo lantegian dabil beharrean

Kimika eta enologia ikasketak eginak ditu. Gaur egun, Bertoko garagardo lantegiko laborategian dabil lanean, beharrezkoak diren analisiak eta katak egiten. Apur bat ikasteko nahiak bultzatuta, edari apartsu honen inguruko galdera batzuk egin nahi izan dizkiogu Britari.

Brita, zer behar du garagardo batek ona, kalitatekoa izateko?

Gustuen arabera izaten da hori, baina nik zera esango nizuke, garagardoak, ona izateko, orekatua izan behar du. Mingostasuna izan behar du, baina ez gehiegi; apar iraunkorra; malta eta lupuluaren aromak izan behar ditu, hau da, zerealak eta lore aromak; bistara garbia izan behar du. Adibidez, garagardo zaporetsuek, ba, alkohol gehiago izan behar dute, eta arinagoak direnek, berriz, ezin dute alkohol asko izan, ahoan berehala igartzen delako. Esan dizudanez, garagardo batek, ona izateko, orekatua izan behar du. Garagardo mota asko daude, esaiguzu jakin-garriren bat.

Garagardoaren artean modu xumean eta labor azalduta, famili nagusi bi daude: ale eta lager. Ale familiarik garagardoak fermentazio handikoak izaten dira eta gehienetan garagardo ilunak, oso zaporetsuak, gogorrak eta

edateko zailagoak. Adibidez, bitter erako garagardoak edo Guinnessak dira talde hone-takoak. Lagerrak, berriz, fermentazio maila txikikoak dira. Garagardo bigunagoak dira, argiagoak, alkohol gutxiagoak. Ideia har dezazun betiko San Miguela edota Heinecken.

Zuek Bertokon era bitakoak egiten dituzue, ezta?

Bai. Sue izena daukana ale erakoa da eta Leizuri berriz, lagerra.

Botilak bere garrantzia izango du, ezta? Jakina. Batez ere botilaren koloreak. Iluna izan behar du, argiak min handia egiten diolako garagardoari. Egokienak anbar kolorekoak izaten dira. Badaude kolore argiko botilak erabiltzen dituzten markak, baina estabilizatzaile asko, hamaika produktu gehitzen dizkietelako egin dezakete hori. Gurean garagardo naturala, aditiborik gabekoa egiten dugu.

Hotzegia edaten dugu garagardoa? Oso hotza, garagardoa epel edan behar da, bestela nekez dastatu daitezke ondo dituen ezaugarriak. Kontua da hemen ez dagoela garagardoaren benetako kulturarik. Jendeari izugarri kostatzen zaio betiko kafia ez den beste garagardoren bat edatea.

Otorduetan ere ez da ohikoa garagardoa.

Ez dago kultura hori, hemen beti ardoa. Baina beste herrialde askotan jateko orduan asko edaten da, Alemanian... Beharbada, arrain batekin, ba, nik ez nuke edango; baina, adibidez, oilaskoarekin oso ondo sartzen da, edota saltxitxa batzuk laguntzeko... Zein da gogokoen duzun garagardoa? Bertoko, jakina (barreak). m

ZELAN EGITEN DA GARAGARDOA

Garagarra erne edo germinatu ondoren erre egiten da. Malta da erre ondoren lortzen dena. Erreketan mailaren arabera, garagardo mota ezberdinak lortzen dira: beltzak, lager... Garagardoa egiteko, sarritan malta mota desberdinak nahasten dira. Ondoren, malta ondo ehotzen da.

Ur berotan egosten da, muztio antzeko bat lortzeko, ondoren muztio hau iragazi egiten da.

Lupulua gehitzen zaio muztioari. Lupulua lore mota bat da, eta mingostasuna eta aromak ematen dizkio garagardoari; gainera, apar estabilizatzailea ere bada.

Muizioa legamiaren (lebadura) laguntza fermentatzen da. Prozesu hau 3 eta 5 egun artekoa izaten da.

20 eguneko tenperatura hotz eta konstante gordetzen da garagardoa. Ondoren, iragazi eta botilaratu egiten da.

Erosketa etxera eroaten dogu!!



ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan:
9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan:
9:00-14:30

dena-ona
supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

—UKri lagundu nahi badiozu, nahi duzun diru kopurua zuzenean sartu gure kontu zenbakian—

diru sarrean idatzi zure izena

[uribertsoan barrena]

Berriaren Berri

Jakizue, uribekostar bertsozaleok, 2001. urtea BERTSOZALEaren urtea izendatu dugula Algortako Bertsolari Eskolakok gure bertso eskualde mailan. Zertarako? Bada urte amaierako ekitaldi nagusian eskualdeko zenbait bertsozale fin saritu ahal izateko. Zergatik? Bertsozalea delako bertsolaritzaren euskarri nagusietako bat. Eta nortzuk sarituko dira? Abendura arte itxaron beharko da hori jakiteko. Zuek, badaezpada, fin ibili.

Testuak: Josu Arroi eta Joseba Santxo / Argazkia: Mikel Martínez

EGITARAU BERRIA Aurreko urteurren urte emankorraren ostean, indarrak berrituta gatz lanera, eta 2001. urte honetarako, egundoko egitaraua ari gara prestatzen. Oraingo ezin dizuegu larregi aurreratu, hainbat ekitaldi guztiz itxi barik ditugulako, baina hurrengo ekitaldi nagusia iragartzeko moduan bagaude, behinik behin. 2001eko martxoaren 23an (barikua), arratsaldeko 8etan eta Getxo Antzokian, bertsolari gazteen jaialdia egingo dugu, aspaldiko tradizioari eutsiz. Aurton sei bertsolari arituko dira Euskal Herriko bertsolari onenen ordezkari: iparraldetik moda-modako bikotea datorkigu, Amets Arzallus eta Sustrai Kolina, Gipuzkoatik oso txukun ari diren beste bi: Nerea Elustondo eta Iñaki Gurrutxaga. Bizkaitik, berriz, jokatu berria den Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2000an oso itxura ona eman duten beste bi: Alfredo Paia "Fredí" eta Etxahun Lekue. 16 eta 20 urte bitarteko sei gazte hauek ez dute edonor izango gaijartzaile lanean: Andoni Egaña. Espero dugu kartel potolo hau osatzeko egin dugun ahaleginari, zuek tajuzko erantzuna ematea.

EGOITZA BERRIA 1980an Algortako Bertsolari Eskolaren egoitza Zabala herri ikastetxea izan zen. 1981etik 2000ra arte San Nikolas ikastola izan dugu aterpe. 2001etik aurrera, eta batek jakin noiz arte, Alday patronatuak kudeatzen duen Itxasgane kulturgunean izango gara. Milurte

berriarekin batera aldatu gara egoitza berri honetara. Izan ere, aspalditik ibili gara lokal propioaren bila. Gurekin batera, beste kultur, kirol eta aisialdi talde asko bertaratu dira: Bizarra Lepoan Euskara Elkartea, Getxo Rugby Taldea, Basozaleak Mikologia Elkartea...

TALDE BERRIAK Egoitza aldaketak gure eskolak emateko eran planteamendu berria ezartzea erraztu digu. Aurrerantzean, eta otsailaren lehenengo asteartetik hasita, hiru talde desberdin ibiliko dira eskolan:

1) Lehenengo taldea betikoa izango da, eta betiko egun eta orduan arituko da: asteartero, 20:00etatik 22:00etara. Lehengo sistemarekiko desberdintasun bakarra izango da, 0 mailatik hasi nahi duten bertsozaleei aukera emango zaiela erritmo lasaiago batean hasteko. Eskola bakoitzaren hasieran bertso paperak kantatuko dira, eta hariketa hori guztiek batera egingo dute; baina horren ostean, bat-batean oraindik ausartzen ez direnek irakasle-arduradun batekin oinarrizko bertso teknikak lantzeko aukera izango dute. Bien bitartean, bat-batean dakitenek beste gela batean jardungo dute, bat-batean, arduradun horrek emandako gaiak kantatzen. Halandaze talde honetan edonor sar daiteke, berria zein aritua, eta gainera musutruk, bertsotruk eta ondopasatruk.

2) Bigarren talde bat ere sortu dugu aurren, ikastetxeetan bertsoa landu eta oraindik helduen bertso eskolan ibiltzeko adinik ez


dutenei begira. Talde hau martitzeneko batuko da, otsaileko lehenengo martitzenetik aurrera, arratsaldeko 6 eta erdietatik aurrera gure egoitze berrian, eta bat-batean kantatzeari begira arituko dira. Talde honen irakasle eta arduraduna Xabier Paia dugu. Animatzen bazarete, esandako egun eta orduetan Itxasgane kulturgunean agertu baino ez duzue.

3) Hirugarren talde bat ere sortu dugu. Talde honetan honezkero bat-batean kantatzen dakiten eta txapelketetarako beren beregi trebatu nahi dutenak ibiliko dira. Irakasle eta arduradun Alfredo Paia ibiliko da, eta eskolak San Nikolas ikastolan emango dira, ostegunero, arratsaldeko 5etatik 6etara (edo 5 eta erdietatik 6 eta erdietara).

Zer esanik ez, hiru talde hauek ez direla bateraezinak, hau da, nahi izanez gero, hiruratan jardutea ere badagoela.

AZPIATAL BERRIA Azken berrikuntza, oraingo, UK aldizkariaren barruko atal beronen azpiatal baten sorrera duzue: 10eko txikian izeneko azpiatala, hain zuzen ere. Azpiatal honetan bertsolari eta bertso munduko jende ezaguna elkarriketatuko dugu, 10 galdera labur eginez (hortixek dator azpiatalaren izena). Berrikuntzaz eta berritasunez beterik datorren urtearen hasiera gisa, nor egokiago azpiatal berrirako Bizkaiko txapeldun berria baino, bueno, hobeto esanda, txapeldun zaharberria: Igor Elortza. m

Hurrengo ekitaldi nagusia, martxoaren 23an Getxo Antzokian: 16 eta 20 urte arteko sei bertsolari gazte, gaijartzaile lanetan, ez edonor, Andoni Egaña



10ekotxikian Igor Elortza

- 1) Zein dago garestiago, txapela ala gasolina? Gasolina garesti dago oso, baina beti da nekezagoa diruz erosi ezin daitekeena eskuratzea. Zorionez gainera, nire autoa diesela da.
- 2) Txapelketaren ostean oporraldirik bai? Hartu nituen gabonetan bost egun mapan desagertzeko. Deskantsurik handiena, hala ere, gabaz lo tranilik egin ahal izatea da.
- 3) Gezur asko esaten al da bertsotan? Bat baino gehiago bai. Kontuan izan gurea jolasa dela hein handi batean eta askotan pentsatzen ez ditugunak ere esaten ditugula.
- 4) Bertsoez gain, ba al daki Igorrek beste ezer egiten? Gauza asko: 1etik 10era zenbatzen, irakurtzen, idazten, hiru sagaraldi berean aidean dantzazten, partixisean jolasten, kanutoarekin "O"-ak egiten...
- 5) Zein giro duzu gustuko bertsotarako? Bertsolariak edozein giroan moldatzen jakin behar du, baina gusturen, benetako bertsozaleen artean kantatzen da.
- 6) Inor maitemindu al duzu bertsoen bidez? Nik dakidala ez behintzat. Kontzienteki norbait maitemintzen ahaleginu naizenetan, ez ditut bertsoak erabili.
- 7) 20 urte barru, bertsolari txapelketak Internet bidez? Bat-bateko bertsogintzaren ezaugarri nagusietakoa jendaurrekoa izatea da. Ez dut uste horretara iritsiko garenik.
- 8) Egañak esan omen du txapela oholza gainean galdu nahi lukeela. Eman azken puntua Egañari. Oholtza horretan egon nahi nuke / hori gertatzen denean
- 9) Ipini 4 oin Algortako Bertsolari Eskolari. Afana, lana, fama eta dana.
- 10) Zer esan behar die Igorrek Uribe Kostako bertsozaleekiko. Aukera eta harrera ezin hobeak eskeini dizkirate beti. Ez nabil zurikerian, egia da. Esker oneko izan nahi nuke.

m

Bertsoeskolatuz 2 NEURRIA

Sarrerako atalean garbi geratu zenez, bertsogintza eta bertsoa dira sail honetako giltzarriak, eta geure irakurleak eskolatzeko ahaleginean, bigarren urrats legez, bertsoaren osagai nagusietako bat aztertzea deliberatu dugu: neurria, hain zuzen. Bertsolariek, euren bat-bateko jardunean, neurri txiki zein luzeetara jotzen dute, eta batean zein bestean bertso molde ugari dituzte aukeran.

Neurria aipatzen dugunean, bertsoko esaldien edo bertsolerroen silaba kopuruaz ari gara, baina, neurria oinarri hartuta, bertsoak izendatzeko orduan bertsolerro kopurua ere izaten da kontuan. Horrek bereizten ditu zuetako askori ezagun egingo zaizkizuen koplak (lau bertsolerro), zortzikoak (zortzi bertsolerro) edo hamarrekokoak (hamar bertsolerro).

Neurri kontuan apur bat trebatzeko ariketatxo bat egingo dugu; bertso hau Jon Maia bertsolari finaren uztakoa duzue, eta bertsoa bera definitzea izango da zuen lana, hau da, neurrien gaineko ezaugarri guztiak zehaztu beharko dituzue (bertsolerro kopurua, bertsolerroen silabak, bertso mota horrek duen izena...).

Gaia: txakur batek haur bat harrapatu eta hiltzorian utzi du.

Txakurra dala eta ez dala aldatu zait umorea agia garbi, eman behar zaio hemen bakoitza(r)i berea. Hor ikusi dut eszena txar bat, hori da pizti pare! Segurtasuna segurtatzeko ez al da askoz hobea? soka berean lotu behar dira txakurra eta jabea.

Adibidean ageri denez, bertsolerro bikoitietako azken hitzak hokideak izan behar dute (gehienetan horrela izaten da, baina badaude bestelako errima bereziak ere). Bada, hokideak diren hitzei oinak deritze, eta oinek ezartzen dute puntuaren amaiera. Puntua zati errimatu bakoitzari esan ohi zaio. Gehienetan bi bertsolerro hartzen ditu puntuak, hortaz, koplak bi puntuak lirake, zortzikoak lauak, hamarrekokoak bost puntuak,... Hari horretatik tiraka, badaude puntu kopuruaren arabera izendatzen ditugun bertso molde batzuk, neurri berezikoak; hiru puntuak, zortzi puntuak,



eskolakbaino gehiago

Denok dakigu euskaltegien zeregin nagusia euskararen ezagutzan eragitea dela, ximpleago esanda helduei euskara irakastea. Hala ere, inguru oso erdaldunean bizi garenez beti izan dute nolabaiteko kezka ikasleek ez daukatelako euskaltegian ikusi edo ikasitakoa benetako hizkuntza egoeretan kontrastatu, egiazatu eta indartzeko; ikasleek ez daukatelako non eta norekin praktikatu ikasprozesua sendotu, indartu eta bizkortzeko. Bestetik, kalean gure hizkuntzaren presentzia hutsaren hurrengo denez, ikasleek zein euskaldunok orohar ez dugu sentitzen euskara, gainontzeko hizkuntza guztien antzera, komunikatzeko, elkarreragina sortzeko, bizitzeko ere badela, eta ondorioz euskaraz ere badagoela ondo pasatzerik, badagoela gauzak ikasterik, badagoela esperientzia kitzikagarriak bizitzerik.

Horri guztiari neurri batean erantzun nahian ikasgelatik eta ohiko jardueretatik apur bat aldentzen diren ekintzak antolatzen dituzte Leioako Udal Euskaltegikoek, batzuek euskaltegian bertan eskola orduetan eta beste batzuek euskaltegitik zein eskola orduetatik kanpo.

Horrela bada, 2000-2001 ikasturtean zehar hainbat ekintza osagarri antolatuta dituzte. Lehenengo hiru hila-beteetan zaldiketa, aerobic, malabar eta hankapalu tailerrak izan zituzten besteak beste.

Urtarriletik martxora bitarteko egitasmoa ere nahiko polit eta aberats ageri da: otsailaren 16-17-18an Jaca aldera joango dira ipar-eski ikastaroa egitera, martxoaren 7an saltsa eta merenge dantzatzeko aukera izango da eta azkenik martxoaren 30ean Gipuzkoa aldeko sagardotegira bisitaldian joango dira. ^m

Xabi Bilbao

Ez da fazile, ezta gitxiagorik be, bertoko euskeraz ederto berba egiten da-kien gazterik topatea, bakarren bat egon arren. Xabi Bilbao getxoztarra horretarango bat da. Filologoa bera, hemeko euskeraren ganean behar egineko lagune deku. Ea zer dinoskun...

Testuak: Andoni LLosa / Argazkia: Mikel Martinez

Ia Xabi, kontaizu apur bet nongo zaran, eta zetan ibilli zaran euskerako kontutun eta holan.

Ba ixen, bertoko naz, getxoztarra. Aitxe-amak bere bertokok dekoaz, Getxoko Andra Marikok. Ni txikerra nitzela, hiru urteaz edo etor gintzezen Algortara biziten, eta hor emon doaz urte gahienak.

Euskera, ordun, etzetik dakizu ...

Bai, etzen euskeraz in du beti, bertoko eran klaro, Getxoko euskeran in du beti. Naure aitxek eta amak beti euskera in doskue semeri. Gaur egun olan iten daude euskera dakien guraso duztik, baia nire aitxe-amak gaztek zirela, askotan ezan hori holan ixeten, sasoi txarra ixen zan hori euskerantzako: badakiu danok, diktadureko persekuziño, eskolatako zigorrak, eta ganera euskerak auki aun desprestigio. Euskaldun askok baztertu iaun euskera eta ahaztu. Nire aitxen etzen gorde iaunden euskera, halan eta duzti. Eta aman kasun zer esan, bera famili erdaldun bateti dator, baia berak ikisi iaun euskera gaztetan, bertako euskaldun askok euskera alboratu edo ahaztu auden sasoi berak ikisi iaun, ahal zan modun, euskeraz iten audenakaz alkartute eta berba inte. Eskertuteko moduko gauza da, nire anaje ta biontzako.

Esan dostezu kosta iten datzule etzeko euskera etzetik kanpora ite. Zelan da hori? Txikerratarik nau usata, etzetik kanpora euskeraz iten dotenen, beste euskera baten berba iten. Hiru urteaz hasi nitzen ikastolara, eta laster kargutu nitzen han beste modu baten in ber nendule berba, ezpabere kostata ulertuten austen (edo batzuten ulertu ez) andereñok nahi beste umek. Badekot anekdotaran bat horren ganen. Ezan ixen esperientzi txarra edo traumatiku edo, hori ez,

bakarrik ordurik aurrera usa in nitzela etzen modu baten iten eta etzetik kanpora (ikastolan) beste modu baten. Umetan erraz ikisten da hori. Berba in leite holau kasun aurren zer in berko lestiken eta abar, baia hori beste kontu bet da.

Umetan normala da euskera kanbiare, baia orain bere, ikastolatik aspaldin urtenta, bardin segiduten dozu?

Bai, ze hara, etzetik kanpora jente gitxik ingo dotzu bertako euskeran, nire kasun ixeko-osabekaz eta holan iten dot, baia osten “getxoerarik” eztot iten. Bai iten dot euskeraz etzetik kanpora askotan eta jente askoaz, ze beharrarako bere euskera erabilten dot, baia euskera batun iten dot hor, eta ezpabere, lagunekaz eta, bizkaierako “toke” batzuk dekozen batueran. Ingiruko duztik beste era baten iten daudenen ezta erraz zeuk beste modu baten ite, batez bere aurek lez berbantan bere badakizu. Ganera gaur euskera “arlo” askotara zabaldu da eta berba eta esakera asko ikisi duz, eta denpore ber da kasik etzeko ingirun bakarrik erabilten dan getxora holau berbakaz erabilten hasteko. Ezin da kanbia hori egun batetik bestera.

Getxoko euskera landu edo aztertu in dozu etzeko kontutetik kanpora bere.

Bai, behar apur bet in dot Getxoko euskeran azentun ganen eta bertoko berba batzuk batu eta holan. Oin dala hamar urte linguistika ikisten ibil naitzen kanpon, eta ikasketako praktikarako hemeko euskerako azentu aztertu nendun. Hemeko euskerak, bai Getxokok eta bai ingiruko herritekok (Berango, Sopela, ... Uribe Kosta osokok) gauza interesante asko dekoz eta bat, azentu da.

Zer deko ba, Getxoko azentuk?



Ezta Getxoko gauze bakarrik, baia hemeko azentuk balio semantiko deko, hau da, formaz bardinek direzen berban arten esangure aldetik diferentzik iteko erabilten dala, esate baterako, hau alkatena da batuaz “hau alkatearena da” ixengo lestike, baia hau alkateena da, ostera, “hau alkateena da”; hau da, singular eta pluralen arteko diferentzi iten dau azentuk hemen. Beste horrenbeste pasaten da beste kasu batzuten: katúk jan dau (s.) / kátuk jan daude (p.); andrerí / ándreri, eta abar. Singularra / plurala desberdintasune bai eta beste batzuk bere erakutzi leiz azentuk, kasu baterako, ezta bardin apurtute “apurtuta” eta apúrtute “apurtze”, edo etorrikó “etorririko” eta etórriko “etorriko”; edo ikus gendún lagune “laguna ikusi genuen” eta ikus géndun lagune “ikusí genuen laguna” (errelatiboko esaldi); holau mille adibide dauz. Esan doten lez, azentuk holau gauzak edo antzekok dekoz Getxotik

kanpora bere, singular / pluralana bizkaieraz leku gahienatan iten da, eta azentu erabileko sistema bardin-antzeko erabilten da hemetik eta Gernikeraño. Baia badauz kasik herri baktoko ezaugarriak. Gauza asko esan leiz honen duztin ganera, baia eztot uste lekurik aukiko dule.

Non topa leite informaziño giau?

Bizkaiko herriteko azentun gauzak nahiko aztertute ta zabalduete dauz gaur egun. Batez bere Hualdek, Gamindek eta Elordietak in daude behar asko arlo honetan. Oin, atarata edo argitaratute dauzen gauzak nahiko akademikok eta teknikok direz: azken hamar urteotako ASJU, FONTES eta holau aldizkari filologikotan topa leitez. Getxoko euskeran ganen nik in nendun gahiena ASJUUn dau, Hualdegaz oin dala bedratzi urte atara nendun behar baten. Gaminde eta Elordietan behar batzuk beste leku bat-

zuten bere topa leitez, kasu baterako Mendebalde Kultur Elkarteak ataraten daun artikulua bildumatan, horrek aren errazauk direz ulertuteko.

Ez lestike ona ixengo hemengo euskeran ganen in dana zeozelan batu eta eta jenten eskure iminte?

Bai, holan pentzaten dot nik bere: gauza ona ixengo lestike Getxoko bakarrik barik Uribe Kostako euskeran ganeko eskuliburu bat edo zeozer atarate, ikusi edo ikisi gure dauden jente duztik eskure auki daien. Herri baktokan nor beran aldetik ibilli berren, danon arten gauza polite eta indertzu in leite. Hori gero mille moduten erabili ahalko lestike: atxiñeko bizimodu, esakera eta kontun barri aukiteko; bertako euskerako gauza batzuk ikisi eta gure arteko euskeran erabili ahal ixeteko;...

...edo kanpoko andereño ta maisuk eztaien

“Badakiu danok, diktadureko persekuziño, eskolatako zigorrak, eta ganera euskerak auki aun desprestigio. Euskaldun askok baztertu iaun euskera eta ahaztu”

INAUTERIAK

4. ATALA

* Abisua-fotonobela hau fikzio hutsa da

18




HANDIK ASTEBETERA



AZTERKETARIK EZ!!!



ETXERAKO BUELTAN



Ai! Brasil, Brasil!



A'rd gorri nafarr'a..
(EP!) ar'dorik hoberena!
(EP!)



Ai, ama! Dosia baino sobredosia hartu dudala uste dut!

HANDIK ASTEBETERA



Hara! Nire euskalphone mugikorrera deika ari dira!! Nor izango ote da?

Non egongo ote da Nerea? Eta Mikel? Non ote dago Mikel?



ez ditu teknologia berriak ulertzen

Euskaltel itzela da!! Tumatxa!!

Kontxo, Nerea da! Irudi eta guzti!



Zer uste zenuten, lagunok, etxean geratu behar nintzela? Ba, ez! Tolosan nago, Gipuzkoan, jakina!!

